

Valentina astronauta

Valentina Tereshkova Errusian jaio zen. Txikitan oso neska lotsatia zen, eta bere eskolako klaserik gogokoena gimnasia zen. Kirola maite zuen eta sokatik igotzea izugarri gustatzen zitzaion.



Gaztetan, parakaidismo eskola batean sartu zen. Eskolako ikasle gehienak gizonak ziren eta hasieran burla egiten zioten neska izateagatik. Hala ere, laster guztien errespetua lortu zuen Valentinak, oso ausarta zelako.

Egun batean, gizon bat joan zen parakaidismo eskolara eta espaziora egingo zen espedizio batera gonbidatu zuen. Valentinak proposamena onartu zuen eta hurrengo asteetan gogor entrenatu zen; batez ere, grabitatea eta espaziontzia kontrolatzen ikasteko.

Azkenean, eguna heldu zen eta 1963ko ekainaren 16an Tereshkova **"Vostok-6"** izeneko nabera igo zen. Valentinak 3 egun pasatu zituen espazioan froga eta esperimentu desberdinak egiten. Lurrera itzuli zenean ongi-etorri handia egin zioten, baina urteak pasatzen joan ziren eta bere balentria ahazten joan zen.

Orain gure txanda da. Denon artean bere istorioa zabalduko dugu:

Valentina Tereshkova, munduko lehen emakume astronauta.



"Vostok 6" izeneko espaziontzia

Testua arretaz irakurri eta erantzun galderak

1) Non jaio zen Valentina Tereshkova?

- a) Errusian b) Estatu Batuetan c) Vostok-en

2) Zergatik da ezaguna Valentina Tereshkova?

- a) gimnasta ona zelako b) oso ausarta zelako
c) Lehen emakume astronauta izan zelako

3) Gaztetan non sartu zen Valentina?

- a) gimnasia eskola batean b) Astronauta eskola batean
c) parakaidismo eskola batean

4) Eskola horretan gizonek burla egiten zioten baina guztien errespetua irabazi zuen. Zergatik?

- a) oso argia zelako b) oso ausarta zelako c) neska zelako

5) Zer egin zuen Valentinak espaziora joateko proposamena onartu eta gero?

- a) gogor entrenatu b) parakaidismoa egin c) ospatu

6) Zenbat denbora pasatu zuen espazioan frogak egiten?

- a) hiru egun b) urteak c) sei egun

7) Lurrera itzuli zenean ongi-etorria egin zioten

EGIA GEZURRA

8) Egia edo gezurra: Urteak pasatu ziren baina guztiak ondo akordatzen dira Valentinak egindakoz

EGIA GEZURRA